

2011-2012ko ikasturtean, 2. mailako gure 116 ikasleak izan dira proiektu honen protagonista nagusiak. "Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza" irakasgaiari landu dugu, talde bakoitzeko tutoreen gidaritzapean. 5 taldetan banatuta daude 116 ikasle hauek, baina proiektu bakartzat ulertzen dugu hau. Ikastetxeko proiektua da, talde bakoitzak berea garatu du antolaketa erraztearren, baina osagarriak eta denonak dira guztiak. Hori dela eta, talde ezberdinetan egiten dugunaren inguruko informazioa etengabea izan da lan-talde osorako.

Esparru ezberdinetan lanean diharduten elkarteetako kideak ekarri ditugu ikastetxera euren lana ezagutzera eman ziezaguten:

-

Alcohólicos Anónimos taldeko kideak.

-

Odol emaileen elkarteko kideak

-

AGIPASE elkarteko kideak hezkidetzari gaia jorratzera.

-

GIZALDE taldeko kideak: boluntariadoa.

-

Emaus taldeko kideak.

-

Kontsumo arloko kideak.

Honen asmoa gure ikasleak gizarteko errealitate ezberdinekin harremanetan jartzea da, leihoak irekitzea hortik begirada kritikoz begira dezaten eta gizarte hobeago bat lortzeko egin dezaketenaren inguruko hausnarketa bultzatzea. Nolako gizartea da gurea? Nolako beharrak daude? Zergatik ematen dira honelako egoerak? Zer egin dezakegu guk egoera hauek hobetzeko? Nola eragin dezakegu gure inguruan? Zer beharko genuke honelako zerbait egiteko?..

Hausnarketa honetatik abiatuta, talde bakoitzak gara daitezkeen proiektuen inguruko hausnarketa egin du eta "brainstorming" antzeko bat egin dugu, lortutako ideiak talde ezberdinetan konpartitu ditugularik. Ondoren, proiektuak lehenestera pasatu gara talde bakoitzean, kontutan hartuz beti ere 5 talde arituko garela lanean eta ikuspegi orokor bat eman beharko geniola proiektuari. Ikasleek primeran ulertu dute hau, eta taldeko lehentasunak ezartzerakoan kontutan hartu dituzte beste taldeen lehentasunak ere.

Beraz, proiektuaren hastapen honetan eman dira jada proiektuaren ikasketa, funtsa, helburuetariko... batzuk:

-

Proiektuaren plangintza orokorra kontuan hartu da, antolaketa errealista kontenplatu da.

-

Ikasleen iritziak eta interesak kontuan hartu dira.

-

Proiektuarekiko ilusioa, konpromisoa eta erantzukizuna azaldu da.

-

Eraginkortasun pertsonala kontutan hartu da.

-

Talde-lanak suposatzen dituen gaitasunak garatzen ari dira: hitz egitea, amore ematea...

-

Talde baten kide sentitu dira.

-

Jarrera pro-sozialak garatu dira.

-

Adostasunera iritsi dira.

-

Ikasleak protagonista sentitu dira.

Hauek dira aukeratutako proiektuak:

-

2. A: Ibarlako errekaen garbiketa.

-

2. B: HH eta LHko ikasleei laguntza eman.

-

2. C: Odol emaileak lortzeko kanpaina.

-

2. D: Agureengandik txikiengana: joko, abesti, istorio eta errezeten transmisioa.

-

2. E: Bizitzarako oinarrizko gaien bilketa.